Donosti Jorrailak 19

Kaixo herkide agurgarria:

Atzo Baionan izandu nintzen, Museo Basko'an. Mozorro edo Máskara (karetak) billa ihardun nintzen. Bat bakarra aurkitu nuen eta hau telaskoa zen. Gainera jantziak osatzeko ziren. Mozorro bezela ez nuen bat ere aurkitu.

Museoko zaindariari zure zuzenbidea eskatu nion eta hemen naukazu konsejo eske.

Zuk, euskal tradiziozko mozorrorik esagutzen ahal duzu? Nun ikusi dituzu? Nun daude? Ikusterik posible ahal da?

Errenderian ikastolak egindako mozorro erakuspen bat izanen da, Maiatzak bostean. Horretaz bada, naiz ta berandu izan, lehen bailehen erantzuteko eskatzen dizut. Etnografi aldetik ia zerbait antola dezakegun, mozorro erakuspen hau osatu dedin.

Aurretirez mila esker emanez

Martin Mimentza
C/ Larraundi 85-2° izd
ALZA - Sn. Sn.